

EL LIBRO NEGRO DEL EUSKARA

(Jose Basterretxea «Oskillaso», Bilbao 1984)

J. Basterretxea'ren liburu oneri buruz Yon Egidazu'k azaldu eban eritzia *KarmeFen* orrietan (1984, 3-4, 104-107 orr.). Nire asmua idazki onetan, eritzia eraotea baino liburuaren idearik garrantzitsuenak batzea da. Oraingo idea batzuk urte asko dirala idatzi ebazan idazleak: *Kurloiak* bere ipuin liburuari egindako itzaurrean (1962) eta *Egan* aldizkarian (4-6, 1963). Zabalago eta aberatsagoa ezeze, ordurik ona une batzuetan badago alderik. Alan be, ez doguz aldeok emen ikertuko; oraingo liburuko ideak eurak dira naiko garrantzitsu ta jakingarriak eta. Egilleak erderaz idatzi bear izan dau liburua, darabillan gaia ain larria izanez, danak ulertu bearrekoa dalako (277). Euskerearen gaurko egoera baltza da bere gaia, leen artu ziran eta artu diran bide txarrak, eta euskera benetan salbetako emon bear litzakezan pausuak.

Euskara zuzena ta okerra. Onetaz labur egiten dau berba idazleak, lcnengo kapituluan: izkuntza barruko aldakerak, linguistikarentzat danak dira berez zuzenak eta bidezkoak. Eskolearentzat, ostera, era diferente orreetatik bat izaten da geien baten zuzena, eta beste erak, okerrak. Eskoleak (eta pentsakera bardinoko gramatikak eta abarrek) gizartean onartua edo txartzat emona irakasten dau; baifia.ez gizarte osoak eta errealak darabillan izkuntza, gizarteko mailla batzuk artuazo dabena baino: irabazle urten dabentak, indarra ta ospea dabentak, eta, beraz, jarraibidetzat ikusten diranak. Euskara barruan orain arte olakorik ia ez da jazo izan; azken urteotan baifia sartu da, eta modu txarra-

goarr ganera, irakasten dan euskerea sarritan ez dalako inorena, erdi-euskerea baino: Asi se explica que uno oiga con frecuencia afirmaciones como esta:

«Mi hijo ha aprendido muy bien el euskara. No como lo hablan en las aldeas, sino bien. No el euskara vulgar, sino el academico, el bueno».

El no sabe que el euskara bueno es el vulgar y el malo el que habla su hijo (19 or., 23, ikusi 231).

Euskerea olakoa da. Izkuntza biziak ez dira asmatu egiten, eta berez, bizitzaren indarrez, mobitzen dira. Gure izkuntza ez da gura geunkean lakoa: era ezbardinetan bizi da, *onelakoa* da eta ez bestelakoa (23, 221, 274). Egin geinkean gauza bakarra, dan moduan zaintzea da. Ezin geinke errealidadea beartu eta euskera bat egin: ori guzurra da, euskera ez da bat (194). Egilleak ez ditu gogoan beste izkuntza batzuetan be aurkitzen diran azaleko era ezbardin batzuk. Olakoak be asko dira euskera barruan. Baina idazleak euskera barruan izkuntza diferenteak dagozala esan gura dau.

Euskera normalizatzean eta «batzean» egiten diran aalegiefien azpian oinarri oker bi dagoz: 1) Euskerea bat dalakoaren sinestea; 2) erdal mentalidadea. Baina «Euskal izkuntza literarioak ez dira dialektoak, famili bereko izkuntzak baiilo» (271). «Guk ez daukagu izkuntza bat, batzuk baino, nazino bat gareanaren kontzientzia eta erri lez alkartzen gaitun anaitasuna euki arren» (274). Erraza bat gara, erri bat, famili bat, eta orregaitik izkuntza bat daukagula esateko jokerea; baina egitez eta benetan izkuntza batzuk dira (278-9). Famili bereko (euskerea) izkuntza diferenteak.

Euskal «dialektoak» alkarregandik beste izkuntza batzuk alkarregandik banatzen diran aifta banatzen dira (211). Konparaketa batzuk egiten ditu: lenengo lapurdera eta bizkaieraren artean; gero, gaztelera eta italieraren artean, gaztelera eta portugezaren artean. Eta au ateraten dau: urrifiekko euskal dialektoen arteko aldea (bizkaiera eta lapurdera, esate baterako), gaztelera eta frantzesaren artekoa baino andiagoa da; eta urreko dialektoen

artekoa (gipuzkera-bizkaiera, gipuzkera-lapurdera), gaztelera eta portugésaren artekoa baino andiagoa (batasun literario dauanez gogoan, ebakera, aoskera ez dau em en begiratzen) (270).

Nondik euskera bat egin eta artuazoteko aalegin ori? «Gaztelera, frantzesia eta Europa'ko izkuntza andi guztiak imitatzearen» (271). Batez be, baina, gaztelera mentalidadeak agintzen dau (216). Euskal pentsakerea eta erabagi-aalmena ia itota dagoz erdeldunen artean. Erdeldunak agintzen dabe euskera arazoetan be (104). Euskaldunberriak euren irakasleak izan bear lcukecnai irakasten dautse euskerea (128- 148-9). Euskaldunak «Euskadiko indioak gara» (134). Baina, gero, -euskaldunak eurak be sarritan erdal mentalidadeak eta euskaldunberrikeriak kutsututa dagoz (155).

Erdal pentsakerak eraginda euskera biziaren ganean eskua jarte au antxifiakoa da, orain momenturik larriena izan arren. Leengo gizaldiaren azkenerantza eta gizaldi onetan, borondate onez be gauza asko egin dira oker auzi onetan. Lenengo, garbizaleen aldia izan zan. Gero «antipuristen» aldia (88 or. aurrera). Aldi guzti au, gizaldi onetan zear, banakaren bat salbetan dala, «tunel illuna», «desastre» bat izan da euskal literaturarentzat; alan be, lenengo aldian kaltea ez zan igaro aozko izkuntza bizira; orain, ostera, euskera bera, eta ez literatura bakarrik, dago il zorian. Aide batetik, sarritan, euskerea erdaldundu egiten dalako; eta bestetik, benetako euskal izkuntza biziak, batua ezarteko, kendu ta il egin bear diralako. Aipaturiko mobimentu biak sus-trai bardina dauke: euskera bizia despreziaztea (284). Orrela, euskera biziaren eta idatziaren artean sinestu ezineko aldea dago (129). Ez dago tunel orretatik urteterik, euskaldunak euskerearen arazoa euren eskuetan benetan artu arte (284 aurrera).

Batzuk lotsatu egiten dira, ain gitxi izanda, euskerea «dialekto» diferenteetan bananduta daukagulako. Baina «izkuntzak diran modukoak dira eta ezin daitekez aldatu oso gainctik baino» (221). Euskerea euskal izkuntzak dira, eta euren orde forma bakar bat ezartea, benetako euskerea desegitea da. Egi au naiko da batuaren aldeko lana ezeztatzeko (benetako euskal izkuntzak

iltera goazala autortu gura ez ba da).

Baina, ganera, guretzat arto izateko motiboa da euskerea olan bananduta aurkitzea (221-2). Lenengo, munduko 6 errazetatik bat euskaldunok gara, eta gure izkuntzea be geure bereizgarri partikularra dogu, geure izakera apartekoaren ezaugarri argia: dan moduan, bere izkuntza partikularretan arrotasunez zaindu bear dogu. Bigarren, beste Europa'ko izkuntzak euren izakera bakarra ta zabala konkistaren bidez eta bertan leenago erabilten ziran izkuntzak illez lortu dabez. Gure euskerearen istorian, ostera, ez dogu olako eten eta aldaketa aundirik ezagutzen. «Euskaldun ez diranetatik nok esan leike Europa'n beste orrcnbeste? Au da gure izkuntzarentzat aintza-errazoirik andiena. Inoz konkista bakoak garala erakusten dau» (294-5). «Lujo oso aundia da gurea lako izkuntza eukitea, eta lujoak ordaindu egin bear dira», lekarkezan ekonomi ta edozetariko eragozpenak onartuz (207).

Olan, ba, euskerea ez da izkuntza bakar bat, izkuntza bizi batzuk baino. Eta, beraz, euskera bakar bat ezarri gura ba'da, gure euskerea diran izkuntza biziak illez izango da. Neure partez be, au ondo azpimarratu gura dot. «Batua» esaten da, baina emen ez dago batzerik: euskal izkuntzen orde forma bakar bat goitik beera, indarrez eta medio guztiakaz ezartera datoz. Egilleak dinon lez, izkuntza bizi barri baten barruan, «eroan daikezue» formaren orde ezin leike inondik be «eraman dezaizkizue» esan: onen orde «los podeis llevar» esango da, eta kitu (204-5). Euskaldun batek ezin leike beretzat sentidu batua: ez da bere izkuntza (232) («politika-eraz» bakarrik ikusten dauanak sentidu leike; euskera erreala maite ez dauanak, eta euskaldun erreala be maite ez dituanak). Orregaitik au esateraino eltzen.da idazlea: telebista be bai, baina batez be eskola batuak («concentraciones escolares») dira euskerearen arerio mortalak, euskaldun umeak erderean guztiz murgiltzen dira ta; baina onen ostean euskaldunen ikastolak jarten ditu, euskaldunai batua irakasten jakelako eta batutik norbere euskal izkuntzara zubirik ez dagoalako (296-7). Beste izkuntza bat da, naiz ta euskerearen barrukoa, ez da gure eguneroko izkuntza eta ez da bere forma literarioa be (gorago ipini dan adibidearen antzekoak nai beste ekarri leite-

kez). Izatekotan, beste izkuntza bizi baten forma literario izan leiteke, eskolan ikasi bearrekoa eta abar, baina beste euskaldunak euren forma literariotzat sentidu ta artu ta erabilli ezin daikeena. Ez dago bitartean bizitza-zubirik, ez dago zubi bizirik. Artifizialki erabilli leiteke nozik bein, uneren batzuetan, baina bizitzako berezko alkarbide bizia ez da izango euskaldunentzat. Berak ezin leike bizitzea osorik artu, eta, beste aide batetik, gaurko egoera makalean, euskal izkuntza biziak ilten parte artzen dau.

Labur esan daiguzan orain arteko idearik beineak: 1) Euskera barruan izkuntza diferenteak dagoz 2) Inok ez dauka izkuntza biziak gogorkeriz erabilli edo beeratu eta ilteko eskubiderik. 3) «Batuak», egitez, euskal izkuntzak (batzuk beintzat) iltera daroaz, eta neurri orretan beintzat, euskera bera iltera doa.

Zev eginP'l) Lenengo, bakoitzak norberaren euskerea ikasi bear dau ondo. Errikoa eta literarioa. 2) Beste lurfaldeetako euskerak ulertzen be ikasi bear da (231). Au alkarregaz artuemonak eukiaz lortzen da berez. Baina batez be eskolearen eginkizuna da beste euskalkien ezaguera au emotea (285). Bakoitzak bere euskalkian egiten dau berba; besteetan berba egiten ikastea ez da bearrezko, eta antinaturalc litzake. Berezkoa, euskaldunen artean, bakoitzak berean egitea da, eta besteak errez ulertzea (204). Auxe da ain zuzen be batasun bide bakarra, berezko bidea, erriak berak ibilliz egingo dauana (64, 202) (aipatu daigun emen telebistak alkar ezagutze onetan burutu leiken lana). 3) Ortografia be bateratu leike, itz bardinetan ezeze, ia bardinak diranetan be bai, batzuetan beintzat. Onetan, batasunagaitik, eta batasunagaitik bakarrik, «h» onartzen dau guztiz egilleak; baina, batera, beste berba batzuen batasun-ortografia aurkezten dau (osabaa, barri eta abar) (233). Berba egin eta irakurri bakoitzak bere lekuko erara egin arren, idatzi fonetismo ta laburpen barik egingo da (285). 4) *Euskara osotua*. Orain arte esandakoari ezer kendu barik, batasun bidean emon leiken beste pausu bat aurkezten dausku idazleak. Euskara osotuak, ortografian bateratu ezin daitekezan berba guztiak sinonimo lez artzen ditu, daukagun benetako euskera errespetatu bear dogunez, eta zein forma aaztu eta zein zaindu erabagiteko inor ez garan ezker (232, 291). Euskal-

kietako era diferenteok naasta egiten dira idazki berean, eta orrela euskalki guztietako irakurleak aurkitzen dabez euren formak eta besteenak (289) urr.)- Esate baterako, JAUSI JAKOZ eta ERORI ZAIKIO biak onartzen dira eta biak erabilten.

Egillearen ustez, Euskara osotua erabili bear litzake idazki oflzialetan, euskalki diferenteetako euskaldunai zuzenduriko idazki oflzialetan (287). Gero, nobeletan, aparteko eragin artistikoa izango leuke euskalki diferenteak naastatze onek. Alkarrizketak errealak, leku-lekukoak izango litzakez, eta narrazioa euskara osotuan, zein euskalkitan idazten dan agertu barik, objektiboagoa izan daiten, eta alkarrizketatik diferentea.

Eritzi laburra. Bat nator egilleagaz oifiarritzko ideetan. Egitezko zeaztasun batzuk eztabaidatu leitekez: esate baterako, euskal gramatika esakun batzuk zuzenak diran ala ez; «aldi baltza» baltzegi pintaten dau nire eritziz; ainbeste idazle langille gau illunera botateko, zeatz ikusi bearko litzake bakoitza. Liburuan agertzen diran adibideak ez dabe inondik be danentzat balio. Eta berba purista pare bat idazki baten aurkitu arren, • ezin leiteke beste barik esan erriagandik aldentutako izkuntzan idazten danik. Alan be, bere kritikak, neurriz ulertuta, badau errazoirik naiko; eta berak liburuan emoten ditun bere euskerazko itzulpenak, ain errikoi ta biziak, eredugarriak dira.

Ikastolen eragin kaltegarriari buruzko eritzia (batua dala ta, eta Bizkaian batez be) larregizkoa dirudi, eta beste alderdi onak ikusiz osotu bear litzake. Euskalkien eta izkuntza erromanikoen arteko konparaketa eta euskalkien arteko aldea geiago zeaztu bear litzakez, emen be izkuntza alderdi guztiak kontuan eukiz. Alan be, bere eritziaren muinagaz bat nator.

Ortografia, «h» ta guzti, nik neuk onartuko neuke, batasunagaitik, egillearen ortograf! bateratua onartua balitz, eta batez be berak eskatzen dauan euskal izkuntzakanako begirunea, maitasuna eta duintasun ikutu-ezifia onartuko balitzaz.

Euskara osotua, egilleak difioan neurrian erabilliz, ez da berez idea txarra. Baifia ez da aaztu bear beti be izkuntzak naasta-

tzea dala. Jakina, berak azpimarratzen dauan lez, ez da gauza barria; erriak berak, euskalki diferenteetakoak alkarregaz luzaro artuemonetan ibiltean, egiten dauan naastatzea da. Baina emen bat-batekoa, eta orrela artifiziala, danik ezin leiteke ukatu. Orregaitik itaun batzuk jatorkuz gogora: lau euskalki naasta bearko litzakez ala geiago? Eta ze neurritan? Zelako erlazinoak sortuko litzakez euskara osotu orren eta euskalkien artean? Osotua izango litzake «ofiziala»? Egilleak izkuntza literario guztiak dirala ofizialak erantzungo leuke, uste dot, eta osotua aipatutako dokumentuetan bakarrik. Baina orren jarraian, edo batera, ez litzakez euskalki utsak beeratuak izango, Jaurlaritzaren idazkiak osotuan diran ezkerok? Jakina, olan be oraingo egoerea baifio txarragoa ez litzake izango: euskalki guztiak landuko litzakez eta guztiak, naastata, erabiliko litzakez. Itaun bardina egin bear dautsagu nobeletan osotua erabilteari; adibidez, *Kurloiak* liburuan erabililitako euskara osotua naiko urrin dabil, berezkoa danez, bizkaieratik. Alkarrizketak leku-lckuko euskeran; narrazinoa osotuan. Idazleak darabillan euskerea ez da gurea lakoa: idazlearen prestigioak ez leuke beeratuko euskalki uts bakoitza? Baifla, barriro be badinot, oraingoa baifio ohea izango litzake egoerea. Danak landuko litzakez eta danak izango leuke duintasun bardina.

Nire eritziz garrantzitsuenak diran ideak bakarrik ekarri dodaz ona. Baina liburua askoz aberatsagoa da. Errazoiketa eta datoz ornidua. Esate baterako, euskera ia galdurik dagoan tokietan zelako bideak artu bear litzakezan, edo itzultzaille onak eukiteko zer egin bear litzaken: idea praktikuak be interesgarriak, pentsau ta erabagi bearrekoak.

Ez aztutekoa Oskillasoren «humorea». Zientzilaria da. Baina baita idazle ona be (euskeraz, prosa kreatzaillean, onenatarikoa, prosalari bikain ezezaguna). Errazoiketa ta oar zorrotz eta dato zeatz artean, irakurle zuurrak barre be polito egingo dau.

Luis Arostegi